

Bihar, txirrindu karrerak

Irrintzik antolatu ditu haurrentzat ▶ 6



Eskualdeko arraunlariak Gipuzkoako Txapelketan

BATELAK ▶ Bi batel ariko dira asteburu honetan Pasai Donibanen, neskak eta mutilak

TAK ▶ 80 lizentzia egin ditu jada Tolosaldeko Arraun Klubak; hasi dira sanjoanetakoa prestatzen ▶ 3

Jangela martxan dago Haur Eskolan

Duela hilabete inguru hasi da berriro ▶ 7

Ingurumena lantzeko aprobetxatu dute Zuhaitz Eguna

ALTZO ▶ Bi haritz landatu dituzte eskolako ikasleek Geizan eta herriko ikurra den arte berria herritarrek plazan ▶ 5



Antton Karrera. INIGO TERRADILLOS

ANTTON KARRERA ▶
EB-BERDEAK-EKO
ZERRENDABURUA

«EB-Berdeak gobernua osatzeko giltza izango da»

Bigarren aldiz, Gipuzkoako zerrendaburua izango da amezketarra ▶ 2

Garziandia Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira bihar

Mikelperizena-Zubieta eta Cerezo-Huarte lehiatuko dira Beotibarren ▶ 4

NOELIA LATABURU




ANTTON KARRERA ▶ EZKER BATUA-BERDEAK ALDERDIKO GIPUZKOAKO ZERRENDABURUA
IMANOL GARCIA

EAEko Legebiltzarrean lehenengo legealdia bete du Antton Karrera amezketarrak Ezker Batua-Berdeak alderdiarekin. Hilaren 17ko hauteskundeetan Gipuzkoako zerrendaburu aurkeztu dute eta errepikatzea ez ezik, lurraldean bigarren hautetsia lortzea espero dute.

Zer balantze egiten duzu aurreko legealdiari buruz?

Gogorra izan da eta gatazkatsua ere bai. Blokeo handia izan da, batez ere aurrekontuetan, lege garrantzitsuetan... Halere uste dut Legebiltzarrean eztabaida sakonak izan direla bai autogobernuaz, bai bakea lortzeko bideaz. Eta aipatzen da ere Auzitegi Gorenak egindako agresio handia Alderdien Legea egin zenean eta Legebiltzarretik Sozialista Abertzaleak ateratzeko. Legebiltzarrak izugarriko duintasuna izan du bere gauzak nola egin behar dituen defendatzerakoan. Bestalde, lege mordoa onartu da, nahiz zailtasunak egon. PPK eta PSE-EEK %98an berdin bozkatu dute. Batasunak 96 aldiz bozkatu du PP eta PSOErekin eta gai garrantzitsuetan, aurrekontuetan adibidez.

Zer nolako esperientzia izan da lehenengo legealdia?

Ordu asko egin behar izan dira, gobernu osatzen genuenez. Legebiltzarrean aurkeztu beharrekoak aurretik adostu behar dago eta horrek negoziaketan asko egitea eskatzen du. Nire burua gustura ikusten dut eta uste dut lan serioa egin dugula eta alde horretatik balorazio oso positiboa egiten dut.

Zein da zuen programa?

Bi ardatzetan banatzen da. Lehenengoa bakea eta normalizazioa lortzeko bidea. Horretarako oso garrantzitsua da Legebiltzarrak osatu ondoren mahai bat egitea, herri honetan garrantzia duten alderdi guzietekin eta ez bakarrik legebiltzarrean egongo diren alderdiekin. Batasunak ere egon behar luke. Mahaia osatu elkarrizketa sakona eta aurretik baldintzarik gabekoa egiteko. Gero nahitaezkoa da herri honi galdetzea. Guk planteatu behar dizkiogu gauzak, baina azkenean herriak erabaki behar du. Beste ardatza ezkerreko politika egitea da. Ezkerreko politika egin behar da etxebizitzaren politikan, ingurugiroan, baita gutun soziala indartzen... Gobernu osatzerakoan guk mahai gainean horiek jarri genituen eta berriro ere jarriko ditugu.

EAI-EAekin berriz hirukoa osatu nahi duzue?

Batez ere ezkerreko politika



IÑIGO TERRADILLOS

«Ziur nago Ezker Batua-Berdeak gobernu osatzeko giltza izango dela»

Antton Karrera amezketarra bigarren aldiz aurkezten da Ezker Batua-Berdeak alderdiarekin lurraldeko zerrendaburu

egiterakoan akordioak lortu beharko genituen. Azken lau urteko ibilbidea ikusita aurrerak ikusten ditugu eta gu prest gaude. Gobernu zabal bat egitea ere ez dugu gaizki ikusten, baina gaur egun horrela korrik egiteko baldintzarik ez dagoela pentsatzen dut.

Gobernu zabal diozunean PSOEz ari zara?

Adibidez PSE-EEK esango balu herri honen gehiengoak erabakitzen duena onartuko duela eta baita ere bakea lortzeko prozesu hori ontzat emango balu, posible izan daiteke. Baina oraingoz hori ez dute onartzen. Madrigo komunikabideetatik presioak hasi ari dira PP eta PSOErekin gobernu osatzeko, baina guk ez dugun inondik ere PPrekin gobernu osatuko.

Gobernu osatzeko giltza izango zarete?

Ziur nago EB-Berdeak gobernu osatzeko giltza izango dela. Horrek esan nahi du gure politika aurrera eramateko in-

darra izango dugula. Gehiengo absolutuak txarrak dira eta historiak hori erakusten digu.

Datorren legealdia aurrekoa bezain mugitua izango da?

Aurretik oso zaila da jakitea nola izango den. Baina nik uste dut ez dela aurrekoa bezain gatazkatsua izango eta hainbeste blokeoa ez dela izango. Apirilaren 17an hautesleek emango dizkigute pautak bartzuk eta horiek oso garrantzitsuak izango dira. Oso legealdi garrantzitsua izango da bagegintzan.

Batasuna eta Aukerak Guztiak ezingo dira aurkeztu. Nola ikusten duzu egoera hori?

Behin eta berriz esaten dugu, Alderdien Legea egin zutenetik bere aurka gaudela. Benetan onartezina da eta Alderdi Sozialista ausarta balitz egin beharko zuen zerbait hori apurtzeko. Aukerak Guztiak ez legalizatzea oraindik eta okerrago, arrazoi juridikoak baino

arrazoi politikoak erabili baitira hori baztertzeko.

EHAK-k Aukera Guztiak-en hutsunea beteko duela esan du eta baliteke Batasunak alderdi horrentzako botoa eskatzea.

Badirudi horrela gertatuko dela. Hori egiten badute, errespetatuko dugu. Eta Legebiltzarrean badaude, beste edozein alderdiarekin bezala hartuemanak izango ditugu.

Gipuzkoan zenbat hautetsi espero dituzue lortzea?

Bi espero ditugu. Gora egingo dugula garbi daukagu eta hori erakusten dute inkestek.

Ausartzen al zara 75 eserleku banaketa egiten?

Oso zaila da. Hirukoak gehiengo absolutua lortuko duela uste dut: 40 hautetsiren inguruan ibiliko gara. PP jaitsi egingo da eta PSE-EE igo egingo da, PPTik ateratako botuei esker. Inork ez daki EHAK-k zenbat lortuko dituen Batasunak bere aldeko botoa eskatzen badu.

TELEFONOAK ▶
LARRIALDIAK
▶ 112
Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK
Gaur. Azpiroz, M.L. Amaro 9

(Tolosa). 67 51 18.

Larraia, M.I. Elbarren 95

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA
Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶
LANA
Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da arratsaldeatarako. Telefonoa: 649 51 34 87.

Mekanikoa. Mekanikoa behar da Tolosaldean nekazal makinak konpontzeko. Bidali kurrikuluma eta argazkia: DV, Nafarroa etorbidea 5, 1. 20400 Tolosa.

Ref. 1015.

AISIALDIA ▶

Primeran pasatzeko

'Primeran pasa' udalekuetara joateko hilaren 13a baino lehen egin behar da izen-ematea

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria sailak herritarrei jakinarazi nahi die aurtengo udalekuetarako kanpainari buruzko informazioa eskura dutela Tolosako Kultur Etxean dagoen Gazte Informazio bulegoan. 7 eta 13 urte bitarteko haur eta gazteen ztat egin dute eskaintza aurten ere, eta udako hilabete eta leku ezberdinetarako zehaztu dituzten aukera ezberdinen berri emango dietela bertan.

1997-98an jaiotako haurrek, 7 eta 8 urte artekoak, zazpi eguneko egonaldiak izango dituzte aukeran: uztailaren 1etik 7ra Gorlizera eta Zornotzara jo-

ateko aukera izango dute, eta euskara hutsean izango dira udalekuak. Uztailaren 8tik 14ra Barrian, Zornotzan (euskaraz) eta Gorlizan (elebitan) egoteko aukera izango dute; 16tik 22ra eta 23tik 29ra leku beretan, gehi Plentzian (euskaraz); abuztuaren 1etik 7ra Gorlizan (elebitan) eta Zornotzan (euskaraz) eta abuztuaren 8tik 14ra Gorlizan eta Zornotzan (euskaraz).

1994-95ean jaiotakoak, 9 eta 11 urte artekoak, El Puy (euskaraz), La Arboleda (elebitan) eta Zarautz Txiki (bertsolaritza) dituzte aukeran uztailaren 1etik 17ra; Barria, La Arboleda (euskaraz) eta El Puy (ele-

bitan) uztailaren 8tik 14ra; Barria (elebitan), El Puy, La Arboleda eta Zarautz (euskaraz) 16tik 22ra; Barria, La Arboleda, Zarautz (euskaraz) eta El Puy (elebitan), eta 23tik 29ra; La Arboleda, Orio, Segura (euskaraz) eta Zarautz (elebitan) abuztuaren 1etik 17ra eta La Arboleda, Orio, Segura eta Zarautz (euskaraz) abuztuaren 8tik 14ra. Udaleku horiek zazpi egunekoak dira.

Adin horretakoak badute aukera hamar eguneko egonaldia egiteko: uztailaren 1etik 10era Irunen, Orion, Urduñan, Zuhatzan (euskaraz), Oncinedan eta Turtziozen (elebitan). Uztailaren 11tik 20ra Azkoitian, Irunen, Lurraskan, Oncinedan, Orion, Turtziozen (euskaraz) eta Zuhatzan (elebitan); uztailaren 21etik 30era Irunen, Lurraskan, Oncinedan, Zuhatzan (euskaraz), Orion eta Turtzio-

zen (elebitan) eta abuztuaren 1etik 10era Zuhatzan (euskaraz).

1992-93an jaiotakoak (12-13 urte) Zarautz Txikira joateko aukera dute uztailaren 8tik 14ra bertsolaritza jorratzeko, eta hamar eguneko egonaldien artean, Abaltzisketa, Azkoitia, Izurtza, Lauaxeta, Orontze, Zuhatzan (euskaraz), Sastarrain eta Zarautz (elebitan) dira uztailaren 1etik 10era; Abaltzisketa, Lauaxeta, Orontze, Sastarrain, Urduña, Zarautz (euskaraz), Izurtza eta Zuhatzan (elebitan) 11tik 20ra; Abaltzisketa, Azkoitia, Lauaxeta, Orontze, Sastarrain, Zuhatzan (euskaraz), Izurtza, Urduña eta Zarautz (elebitan) 21etik 30era eta Zarautz (euskaraz) abuztuaren 1etik 10era.

9 eta 13 urte artekoak, gainera, hamalau eguneko egonaldia ere badute aukeran, ingele-

seko udalekuetan: abuztuaren 16tik 29ra Seguran izango da.

Zazpi eguneko udalekuetan parte hartzeko 98 euro ordaindu beharko dira; hamar egunekoetarako 142 euro eta ingeles ikastaroetarako, berriz, 240 euro. Plaza guztiak hilaren 26an jendearen aurrean egingo den zozketan banatuko direla adierazi dute antolatzaileek, eta zozketa horretan plaza lortzen dutenek apirilaren 29tik maiatzaren 10era egin beharko dutela behin betiko izen-ematea. Izan ere, «behin betiko izen-emate epea bukatu duen norbaitek izenik emango ez balu plaza horri uko egiten diola ulertuko baitugu». Zozketarako hilaren 13a baino lehen eman behar da izena, Tolosako Kultur Etxean —Villabonako Olaederra kiruldgian ere eman daiteke—.

ARRAUNA ▶

Eskualdeko arraunlariak Gipuzkoako Txapelketan

Infantil mutilek eta jubenil eta senior neskek osatutako batelak ariko dira

IRATXE ETXEBESTE

Pasai Donibanen ariko dira datorren asteburuan Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) bi ontzi Gipuzkoako Batel Txapelketan lehiatzen. Infantil mutilek osatutako batela izango da bata, eta jubenil eta senior mailetakoko neskek osatutakoa, bestea. Taldeko ordezkarien hitzetan, «biek ala biek oso neurri polita hartua dute azkenaldian arraunnean, eta horrek lehiaketan berotuta hasteko gogoia piztu digu arraunlariak eta klubeko arduradunoi».

Amaitzear da batel denboraldia, eta, hala, azken probetara begira dira eskualdeko arraunzaleak. Lehen proba bat egina dute mutilek honezkero: joan den asteburuan Pasai San Pedron batel ligaxkakoa azken estropadan hartu zuten parte eta «neurri txukuna» eman zuten. Bederatzi batelaren artean

—kostaldeko betidaniko klubak beste denak— zazpigarren sailkatu ziren. Haize handia eta itsaso mugitua kontra izan zituzten tolosarrekin, batez ere kontuan hartuta Oria ibaiko baldintzak oso bestelakoak direla, baina, hala eta guztiz ere, maila ona eman zuten.

«Urteak ziren eskualdeko arraunlariak bertako klub baten izenean lehiaketan aritzen ez zirela eta alde horretatik ere oso pozgarria, ospatzekoa izan zen gertaera», esan dute TAKeko arduradunek: «Orain, berriz, Gipuzkoako Txapelketan lehiatzeko txanda da. Bai eurentzat, bai neskentzat».

Neskek lehen aldian izango dute lehiaketan, «lehen aldiz, neskek osatutako eskualdeko batela lehiaketa ofizial batean. Gertaera historikoa da, bai; handia!», diote. Larunbat eta igande goizez, bi egunetan jotuko da Gipuzkoako Txapel-



Jon Gago, Harkaitz Izagirre, Endika Lopez, Julen Gorostiaga eta Ugaitz Mendizabal infantil mailako arraunlariak, Zerkausion. HITZA

keta. Bihar eta etzi, alegia. Lehen egunean sailkapen estropadak jokatuko dira, eta, bigarrenegun, berriz, finalak eta kontsolazio sariak. 11:30ean hasiko dira bi egunetako saioak.

«Esan beharrik ere ez dago TAKen inguruan eskualdeko arraun giroa sendotzen ari dela. Dagoeneko 80 bat lagunentzako lizentziak egin ditugu, pentsa!», adierazi dute arraun taldekoek. Gainera, Zerkausio azpiko egoitza gero eta egokituago dago, beharrezko tresneria bertan edukitzeko eta arraunlariak eroso ibiltzeko helburuarekin, «mahiz eta jakina den eraikinaren eraberritze lanak hasi bezain laster beste nonbait kokatu beharko dela azpiegitura hori guztia».

Sanjoanetako estropada

San Joan jaietara begira, lanean hasi dira dagoeneko Tolosako Arraun Klubeko ordezkariak; 2005eko sanjoanetako estropaden antolakutza lanak hasita daudela, alegia. Horretarako, bilera garrantzitsura deitu zuten arduradunek atzarako. Sanjoanetako batel estropadetan uretan ordezkaritza izateko interesa zuen herri, elkarte, entitate, norbanako... oro gonbidatu zuten batzarrera, euren asmoen berri eman ez zuten. Antolatzaileek adierazi dute bileretatik ateratako ondorioen berri emango dutela aurrerago; herriko jai nagusietan izango diren estropadak aurkezten hasierakoan, hain zuzen ere.

PARTAIDEAK ▶

Datorren asteburuan Pasai Donibanen izango den Gipuzkoako Txapelketan ariko diren arraunlariak dira hauek:

JUBENIL-SENIOR NESKAK

Arraunlariak.

- ▶ Izaro Zubiria, patroia. (Gaztelu).
- ▶ Oihana Lopetegui, hankekoa. (Ibarra).
- ▶ Izarne Garmendia, hankekoa. (Irura).
- ▶ Laida Etxedona, kontrankekoa. (Ibarra).
- ▶ Maitane Garmendia, espaldakoa. (Ibarra).
- ▶ Irati Ezeiza, aurrekoa. (Tolosa).

Lehiakideak. Fortuna, Orio, Getaria, Hondarribia, Zumaia eta Santiagotarrak.

Lana. 2.000 m./hiru ziaboga.

INFANTIL MUTILAK

Partaideak.

- ▶ Jon Gago, patroia (Tolosa).
 - ▶ Harkaitz Izagirre, hankekoa (Tolosa).
 - ▶ Endika Lopez, kontrakekoa (Tolosa).
 - ▶ Julen Gorostiaga, espaldakoa (Tolosa).
 - ▶ Ugaitz Mendizabal, aurrekoa (Anoeta).
- Lehiakideak.** Getaria, Hondarribia, Koxtape, Orio eta San Pedro.
Lana. 1.000 m./ziaboga bakarra.

MUSIKA ▶

**Abesbatza
Federazioaren
batzarra, bihar**

Gipuzkoako Abesbatza Federazioak urteko batzar orokorra egingo du bihar. Orain arteko jardueren balantzea eta aurrera begirako asmoak izango dituzte hizpide bileran. Zuzendaritza berria du Gipuzkoako Abesbatza Federazioak, eta Aitor Imaz tolosarra da lehendakaria. 09:00etan da hitzordua, federazioaren egoitzan (Larra-mendi kalea, 11-behea).

GIZARTEA ▶

**Antonio Moran
Paper Eskolako
zuzendariari omen**

Irungo Ficoban Paper eta Zelulosa Hornikuntzaren Nazioarteko Azoka egiten ari direla aprobetxatuz, Antonio Moran Paper Eskolako zuzendariari omenaldia egin zioten, herenegun, enpresari eta ikasle ohi talde batek eta Udalak. Oroigarriak oparitu zizkieten, txalo artean, jende bez betetako udalbatzar aretoan. 1965etik Paper Eskolako zuzendari da Moran.



Ezker-eskuin: Onintza Lasa, Antonio Moran, Jokin Bildarratz eta Alberto Mateu, herenegun, omenaldiaren une batean. L. MONTES

GIZARTEA ▶

**1.168 euro bildu
dituzte parrokiako
katekesikoek**

Santa Maria parrokiako haur katekesiak pezeta bilketa hasi zuen urte hasieran, Tolosako eta Ibarra misio taldeekin batera. Gujerat taldeak Indian duen proiektua laguntzeko. 151.990 pezeta eta 255,40 euro bildu dituzte; guztira, 1.168,87 euro, hain zuzen. «Erantzun bikaina» ikusita, «eskerrik beroena» eman nahi dizkiete parrokiakoek lagundu duten guztiei.

PILOTA ▶

Txapela jokoan

Mikelperizena-Zubieta eta Cerezo-Huarte lehiatuko dira, bihar, Garziandia Lau t'erdiko Txapelketaren finalean

LEIRE MONTES

Egun handia iritsi zaie pilotariari. Peña Unioneke antolatutako Marzelo Garziandiaren oroimenezko Lau T'erdiko Txapelketa amaitezear da. Bihar, hain zuzen ere, jokatuko dute finala, Beotibarren: Mikelperizena-Zubieta eta Cerezo-Huarte Berako bikoteak lehiatuko dira, txapela nork jantzi. Aurretik, Bengoetxea-Ontsalo leitzarrek eta Berasaluze-Dominguez in-txaurrendotarrak izango dira aurrez aurre, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituen partidari. 11:00etan hasiko da jaialdia.

Peña Union elkarteok harro dira txapelketak eman duenarekin: «Oso pilotari onak elkartzen ditu txapelketak. Urte-tik urtera maila hobetuz doa, eta oso pozik gaude», azaldu dio HITZARI Josu Carabelos antolatzaileetako batek. Jendearen erantzuna ere «eskertu» du Peña Unioneok: «Azken txanpa honetan zale asko etorri da Beotibarrera. Finalak ere ikusmin handia piztea espero dugu».

«Final lehiatua» izango da ikusgai, haren iritziz: «Bi bikoteak Berakoak dira, eta oso ondo ezagutzen dute elkar. Partida bizia izango da, ziur». Finalera iritsi diren bi bikoteak faboritoen artean zeudela dio. Dena den, beste hainbat bidean geratu direla gogoratu du: «Belloso eta Renobales, esaterako, finalera iristeko moduko bikotea ziren; baina faboritoen kontra jokatzeko egokitu zi-

AZKEN FASEA ▶

FINAL-LAURDENAK

- ▶ Cerezo-Huarte 22 / Etxeberria II.a-Setien 11.
- ▶ Bengoetxea-Ontsalo 22 / Izagirre-Zelaia 09.
- ▶ Mikelperizena-Retegui 22 / Renobales-Belloso 16.
- ▶ Baez-Dominguez 22 / Garcia-Moran 16.

FINALERDIAK

- ▶ Mikelperizena-Zubieta 22 / Bengoetxea-Ontsalo 15.
- ▶ Baez-Dominguez 13 / Cerezo-Huarte 22.

BIHAR, BEOTIBAR ▶

11:00, 3. eta 4. postuak. Bengoetxea-Ontsalo (Leitza) eta Berasaluze-Dominguez (Intxaurrendoko) aurrez aurre. **Ondoren, finala.** Mikelperizena-Zubieta (Bera), Cerezo-Huarteren (Bera) aurka. **Amaieran, sari-ematea.**

tzaienez, eta galdu egin zuten. Mikelperizena eta Zubieta oso pilotari onak dira, eta primeran moldatzen dira elkarrekin». Mikelperizenak bi aldiz irabazi du Garziandiaren oroimenezkoa. Dena den, «oraindik dena erabakitze» dagoela dio Carabelosek.

Iaz Sorarrain alkizarrak eta Argote azeptiarrak irabazi zuten Garziandia Txapelketa.

JON EYHERABIDE ▶ MAK TALDEKO ABESLARIA

«Arma dugu musika, eta guda zelaia berbazkoa»

MAK taldeak kontzertua eskainiko du bihar Bonberenean; 'hip-hop' azkarra entzun nahi duenak ezin du hutsik egin

L. MONTES

2003an sortu zen, Ziburun, MAK (Mikrofon Addit Klan) taldea. «Euskal Herrian hip-hop-en lehertzea eta garapena bultzatzea eta hemendik kanpo Euskal Herriaren borroken berri ematea» dute helburu Iparraldekoek. *Suari darion kea* (Metak, Kontrakalea) beren lehen diskoa kaleratu zuten otsailean, euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez idatzitako hamazazpi kanturekin. Mathieu Lagogn-ek, Jo Txaputxino k, Jon Eyherabidek, Clairek eta DJ Alf-ek osatzen dute MAK boskotea. Bihar, kontzertua eskainiko dute Bonberenean, 22:30ean. Jon Eyherabide abeslariak erantzun die HITZAREN galderari.

Nola bururatu zitzaizuen taldea sortzea?

Iparkor musika elkarte osatu genuen Iparraldeko 15 bat *hardkor* taldeekin. Hor gaurko boskote *hip-hop*-zalea ezagutu, eta bira eta proiektu amankomuna aurrera eramatea erabaki genuen.

Zergatik 'hip-hop'-a?

Hip-hop-ak sekulako askatasuna ematen dizu musika egiteko, sartzen ahal duzu zure nortasun osoa sampleak erabiliz... Baina baita ere hitzak di-relako inportantean!

Mikrofonoak armak direla diozue. Zuen hitzak, hortaz, balak. Zer diote jaurtigaiek? Mikroak hartzeko aukera edo ezenatokieta irabazteko auke-



HITZA

rra baldin badugu ez ditugu loreak aipatuko. Ezta «zuretzat ilargia lortuko nuke» ala ez dakit zer nes-ken-7 urteetakoentzako txorakeriak ere. Gaurko egoera larria da: presoak, tortura, euskara, partiduko politikoa eta kultura aktore kriminalizatuak, euskal gizarte anai-arreben artean kalapitan... Ez, ezin dugu horrela segitu. Gure erabitu, eta bira eta proiektu amankomuna aurrera eramatea erabaki genuen.

Ezagutzen al duzue jada Bonberenea?

Ez, oraindik ez dugu aurrez aurre ezagutzen, baina askotan aipatu bai! Grabatu izan ditugu lehengo esperientzi horien bilduma zenbaitzuz Carlos Txap-ekin; eta, iduriz, handik ezagutua da abere hori! Aupa Txap!

Nola sortu zen Tolosara etortzeko proposamena?

Bi *Manga-nesk-power*-ekin lan egiten dugu, eta haiek zizguten proposatu egitea... Hain xarmantak dira bi neska hoiak, eta Bonberenea ezagutu nahi dugulago, baieztu dugu proposamena.

Nola animatuko zenukete jendea MAK-en kontzertura joan dadin?

Beti zaila da merkatuan bezala saltzea zure salda. Baina uste dut *hip-hop* azkarra ikusi nahi dutenek, beste musika estilo bat entzun nahi dutenek, eta betiko talde fotokopietaz nazkatuak direnek gaualdi on bat pasatuko dutela!

ZUZENKETA ▶

Bide Ertzean-ek gaur eskainiko du kontzertua Leidorren, eta ez bihar, HITZAK argitaratu bezala.

ALTZO ▶ INGURUMENA

«Errespetua landuz» Zuhaitz Egunean

Goizean bi haritz landatu zituzten eskolako umek Geizan eta arratsaldean arte berria landatu zen herriko plazan



Bi haritz landatu zituzten umek Altzoko Geizan goizean. N. LATABURU



Arte berria landatu zuten, altzotarrentzat balio berezia zuena. N.L.

NOELIA LATABURU

Zuhaitz Eguna Altzora ailegatu zen atzo hainbat ekitaldiren bitartez. Goizean goiz hasi zen, herriko eskolak eta Santilazpe guraso elkarteak antolatutako landaketarekin. Herriko eskolako gaztetxoak, irakasleak lagun, Geiza aldera abiatu ziren eta bertan prest ziren bi haritzak landatu zituzten. Aitzurra elkarri pasatuz banan bana bere lur zatitxo bat zuten Urnietatik ekarritako bi zuhaitzen gainera. «Hemendik 50 urtetara zure seme-alabak zuhaitz hauen itzalpean eseriko dira», zioten txantxetan irakasleek, ekimenarekin pozik. Landaketa honekin ingurumenarekiko kontzientzia piztea dela helburu nabarmendu zuten. Horretarako, eskola orduetan landareen gaineko zikloa garatu dute, zeinean landare mota ezberdinak azaldu, hauen zainketa eta landaketari buruzko informazioa landu duten.

Artea herriaren ikurra

Arratsaldean, berriz, plazako artea landatu zuten, oraingoan herritar guztien laguntzarekin. Arteak urte asko zeramatzen herriko plaza zaintzen, baina haize bolada gogor batek suntsitu zuen, duela urte batzuk. Gertakari honek herritar guztiak hunkitu zituen, urteetan herriaren «ikurra» izen zena desagertu baitzen. Hori dela eta erabaki zuten berriz ere artea landatzea plazan, berezko zeinua berreskuratutakoa. Ekitaldira Jakoba Errekondo gonbidatu zuten, zuhaitzaren zainketaren gaineko argibideak eman zituena.

AMEZKETA ▶ KULTURA

Gaur amaituko da Kultur Astea bertso afariarekin

Mikel Mendizabal, Bixente Gorostidi eta Igor Elorza bertsolariak ariko dira



Atzoko hitzaldia Ugarte auzoko liburutegian. NOELIA LATABURU

N. LATABURU

Gaur bertso afariarekin emango diote amaiera Amezketa Kultur Asteari. Ekitaldiz beteriko astea izan da hau, «kulturarren sustapena bultzatzea» helburu duena, Jose Mari Goikoetxea kultur zinegotziak jakitera eman duenez.

Gaur Goiko zaharren tabernan elkartuko dira bertso afarirako izen eman dutenak, Mikel Mendizabal, Bixente Gorostidi herritarra eta Igor Elorza —Bizkaiko txapeldua— bertsolarien saioekin alaituko den afari legerako. 21:00etatik aurrera dute hitzordua eta denetarik izango dute aukeran, urdailazpikoa, patea, txorizoa, saiheskia, postrea, kafea eta kopak, nahi adina errepikatzeko.

Bi hitzaldi eta antzerkia

Ekitaldi gehien atzo burutu ziren, izan ere adin guztietarako ekitaldiak antolatu ziren. Le-

henik eta behin, Hurkoak antolatutako hitzaldia eskaini zuten, Ugarte auzoan, dieta mediterranearen mesedean gainera. Ondoren, txikiak herriko frontoian bildu ziren. *Hitzak patriketan* antzezlan aski famatua ikusteko. Hanka-txo taldeko aktoreek denon irrifarreak eragin zituzten euren antzezpenerekin. Beste hitzaldirik ere izan zen, Elhuyar fundazioaren esku, fruitu eta barazkien onuren berri eman zuena, Leire Ezkurra hizlari izan zelarik.

«Pozik gaude antolatutako aste honekin eta udazkenean ere beste ekitaldi batzuk presatatu nahi ditugun», adierazi du Goikoetxeak. Halaber, Kultur Astea ohitura bihurtzeko erronka proposatu dute Amezketa Udaletik, horrelako ekimenak «oso garrantzitsuak» baitira kultura sustatzeko. Aurtengoan duela hiru urte baztertu zen usadioa berreskuratutako, Kultur Astea antolatzerakoan.

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAREN egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta

bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa

ANOETA ▶

**Dirties eta
Ihesbide taldeak,
gaur Gaztetxean**

Gaur 23:00etan Dirties eta Ihesbide talde elorriarrek kontzertua eskainiko dute Anoetako Gaztetxean. Punk eta rock-a uztartuko dituen musika entzun ahalgo da. Dirties taldeak rock-a, punk-a eta borroka batuaz sorturiko Borrokanrola izeneko estiloa ezagutzeko aukera izango da.

BELAUNTZA ▶

**Aljeriako
basamortuaren
argazkiak ikusgai**

Astelehenetik apirilaren 18ra Kultur Etxean Ahaggar, Aljeriako basamortuko argazkien bitartez, ehundurak, koloreak, dunak eta harkaitz egiturak ikusi ahalgo dira. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara eta larunbata eta igandean 12:00etatik 14:00etara izango da ordutegia.

IBARRA ▶

**Pilates eta
'spinning' ikastaro
berriak abian**

Ikastaro berriak abian dira. *Spinning* astelehen eta asteazkenetan 15:30etan, 19:30ean eta 20:30ean eta astearte eta ostegunetan 15:30ean, 19:30ean eta 20:30ean, eta Pilates, astelehen eta asteazkenetan 9:30ean eta 16:30ean eta astearte eta ostegunetan 10:45 eta 16:30ean izango dira.

AMEZKETA ▶

**Petritegi
sagardotegian
bazkaria**

Ugarteko elkarteak datorren apirilaren 16rako sagardotegi bazkaria antolatu du. Petritegi sagardotegian egingo da bazkaria eta autobusa jarriko dute hara joateko. Izen emateko azken eguna astelehena, hilak 11, izango dela eta Goikoetxea tabernan egin beharko dela jakinarazi dute.

IBARRA ▶

**'Zaharrak berri
xou' bertso saioa
gaur Gaztetxean**

Gaur bertso festaz gozatzeko aukera izango da Ibarra Kultur Etxean. Izan ere, Galizia euskara taldeak antolatuta *Zaharrak berri xou* emanaldia izango da ikusgai 22:00etatik aurrera. Emanaldi honetan parte hartuko duten bertsolariak Xabier Silveira, Jokin Uranga eta Fredi Paia dira.

VILLABONA ▶ TXIRRINDULARITZA

Gaztetxoentzako txirrindularitza lasterketak bihar

Benjaminak, alebinak eta infantilak lehiatuko dira; kirol honek kezkatzeko moduko etorkizuna duela azaldu dute



Irrintzi elkarteko txirrindulari batzuk eta entrenatzailea. IMANOL GARCIA

IMANOL GARCIA

Bihar Villabonan gaztetxoentzako txirrindularitza lasterketak egingo dira Irrintzi taldeak antolatuta. 16:30ean hasita benjaminak, alebinak eta infantilak ikusi ahalgo dira txirrindu gainean. Kale Berrian izango dira lasterketaren irteera eta helmuga.

Benjamin mailan deialdia irekia izango da, beraz, 8, 9 eta 10 urteko haur guztiek hartuko ahalgo dute parte. Horretarako 16:00ak aldera irteera puntuan izena eman beharko dute.

Irrintzi elkarteko arduradun den Garikoitz Bidaurretak azaldu duenez 5 haurrek osatzen dute taldea, Urtzi Zubeldiak, Ander Altunak, Odei Gilek, Unai Artolak eta Unai Esnao-

lak, hain zuzen. Martxotik ekainera arte luzatzen da denboraldia gaztetxo hauentzat, eta tartean Tolosan eta Zarautzen antolatuko diren Gipuzkoako txapelketetan ere parte hartuko dute.

Beste lasterketak Urnietan, Tolosan, Lazkaon, Andoainean, Ormaiztegin, Olaberrian, Villabonan, Asteasun, eta Larraitz-Gaintzan izango dira. Gipuzkoa osoan hiru gune daude: Donostialdea, Goierrri-Debaldea eta Tolosaldea. Azken gune honetan 54 txirrindularik eman dute izena eta maila bakoitzean hogeita inguru irtingo dira lasterketa bakoitzean.

Denboraldi honetan Irrintzi-koez ez dute ez kadete ez jubenil mailako txirrindularirik. Ur-

tero goiko mailetara igotzeko prest dauden txirrindulariak bi edo hiru besterik ez dira izaten eta horrela ezin da talde bat osatu. Hori dela-eta elkarteak eta txirrindulariek nahiago dute beste talde batetara joan.

Etorkizun kezagarria

Kezkatzeko moduko egoera dela dio Irrintziren arduradunak. «Euskal txirrindularitza profesionala bere unerik onenari dagoen arren, egoerak berdin jarraitzen badu, hemendik 15-20 urtetara ez da txirrindulari profesionalik izango; txirrindularitza kirola den moduan zuhaitza bat bezelakoa da sustarriak behar ditu goikoa bizirik izateko», azaltzen du.

Bidaurretak puntu positibo bat ikusten du txirrindularitza beste kirolekin alderatuz; «kirol honetan, beste kirolekin ez bezala, taldekide guztiek hartzen dute parte lasterketa guztietan», dio, eta horregatik egun batean soilik bada ere probatzaera gonbidatu nahi dituzte haur eta gazte guztiak.

Horrela, txirrindua probatzaera animatu nahi duenak 647 00 69 93 telefono zenbakira hots egin dezake argibideak jasotzeko. Bide batez, herrialdeko txirrindulari taldearen alde lan egiteko norbait prest badago telefono zenbaki berdinera deitu dezakeela ere adierazi du arduradunak.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Pasa den urteko Olinpiada Txikiakto bola txapelketa. HITZA

XII. Olinpiada Txikia datozen bi asteburuetan

Izen-ematea apirilaren 12a baino lehen egin beharko da Ibarra Kultur Etxean

I.TERRADILLOS

Hauspoa kultur elkarteak Ibarra XII. Olinpiada Txikia antolatu du datorren larunbatek aurrera. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko duten Benito Izagirre kultur etxean datorren asteartea, apirilak 12, baino lehen eta gutxienez 8 kideko taldeak osatu beharko dituzte.

Aurtengo egitarau orotari jokoak biltzen ditu. Olinpiada txiki hauei mus eta eskoba karta joko txapelketekin emango zaie hasiera apirilaren 16an, biak ala biak 15:30ean izango direlarik; lehena IKEN eta bigarrena Su-

begin. Igandean, berriz, leku eta ordutegi berean izango dute hitzordua bi ekitaldiak, Emeterio Arrese parkean toka eta bola jokoan ariko baitira parte-hartzaileak, 11:30ean.

Bigarren asteburuak ere antolatu dira hainbat ekintza, apirilaren 23an ardo dastaketa egingo baitute San Bartolome plazan eta olinpiadari amaiera emateko, partehartzaile guztien arteko bazkaria egingo da San Bartolome plazan, 08:00etako ibilaldi neurturen eta 12:30etako sukaldaritza lehiaketaren ostean. Hauspoa kultur elkarteak parte hartzaera animatu nahi ditu ibartar guztiak.

LEITZA ▶ KIROLA

Etzi egingen da Leitzako XXVII. Herri Krosa

Adin guztietako laisterkarietzat irekita, parte-hartzaile guztiek jasoko dute saria

J. ASTIBIA

Etzi, igandea, goizean, 10:15 ean aterako dira lehendabiziko laisterkariak, Leitzako Herri Krosarako ibilbidea egitera.

Goiztiarrenak gazteenak izanen dira, eta txandak txandaka adin guztietako partaideak ateraz joanen dira, bakoitza dagokion lasterraldia egitera: 10:30ean aterako dira alebinak eta infantilak; behin hauek bukatuta, 11:15ean hasiko dira lasterka beste mailetakoak, alegia, kadeteak, juniorrak, seniorrak eta beteranoak. Esan behar da, izena emateko garaian, 9:00etan hasita, sail bakoitzeko irteera garaia baino ordu laurden lehenago itxiko direla zerrendak, Aurrera elkartetik, antolatzaileak beraiek dira, aditza eman dutenez.

Adin guztietako laisterkari partaidetza ez ezik, bakoitzak bere martxan egitea du ezaugarri lasterketa honen, gainera, herri krosari da-

gokion moduan. Ttipi-ttapa, bakoitzak bere neurrian laster eginez eta lagun artean.

Aurten ere, herriko lasterkariet taldeka egin dezakete izen-ematea eta apustu egin: talde modura izen emanda, bost mutil leitzar 47 minutuz azpitik sartzea helmugara; edo hiru neska leitzar, 27 minutuz azpitik ailatzea. Edozein moduz, lasterkariet artean ez da girorik falta izaten, askotan lagun arteko norgehiagoka eta erronka tikiak ere izaten baitira tarteko. Serioago aritzen denik ere bada, ordea, eta esaterako orain arteko lasterketa honetako marka 29 minutu eta 49 segundotakoa da, Andres Perezek 10 km-tan ezarri zuena.

Gauzak horrela, marka hori hausten duenarentzat saria baden moduan (160 euro), lasterkari guztiek jasoko dute berena: domina eta kamiseta. Eta gainerakoan, sail bakoitzean aurreko lekuetan ateratzen direnek, eta baita herriko lehendabizikoe ere.

LEITZA ▶ KIROLA

Bengoetxea bihar hasiko da lau t'erdian

Oinatx Bengoetxea pilotari leitzarrak bihar jokatu du aurtengo lau t'erdiko txapelketako lehen partidua. Oskar Lasa izanen du aurrez-aurre, Iruñeko Labrit pilotalekuan, 16:45ean hastekoa den pilota jaialdian. Asteazkenean egin zuten material aukeraketa eta itxuraz, biek ere gustura gelditu ziren: Lasak, 106,1 eta 104,7 gramoko pilotak eta Bengoetxeak, berriz, 102,6 eta 104,3koak aukeratu zituztelarik.



Bengoetxea VI.a. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Haur Eskolan, bazkaldu ere bai

Orain berriro, duela hilabete inguru, jarri dute Leitzako Haur Eskolan jangela



Hilabete daramate jangelan eta bakoitzak bere txokoa hartu du jada. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bada hilabete ireki zutela, martxoaren aurrenean egin baitzuten, baina udaberriko oporraldian erdian egokitu delarik, atzokoarekin hamabost bat egun daramatzate zerbitzuarekin: Haur Eskolako jangelaz ari gara.

Oraindik guztiz bukatzekoa dagoela adierazi zuten bertako begiraleek, Agurtzane Mariezkurren, zerbitzu honetarako hartutako langile berria bera ere, eta Maxux Sukuntzak, Haur Eskolako langileak: «sapaia oso altu gelditzen da ume tiki haurrentzat, hutsarte handia dago, eta zintzilikario batzuk jartzen direnean, politago gel-

dituko da». Baina, bestela, leku txukuna eta koloretsua ere bada, hartu behar dituen bazkaldira tikiak neurria egokitutako altzariekin, eta garbiketarako beharrezko diren gailuz hornitutakoa.

Sukaldeko lanak, Erleta eskolan egiten ditu bertako sukaldariak eta jakiak prestatuta eramaten dituzte Haur Eskolara: «Hilabeteroko menua aurretik erabakitzen da eta gurasoek ikus dezaten agerian jarri», argitu zuten, «horrela etxean zer jarri jakiteko». Bestalde, haurrek zer otordu modu egin duten ere, jakinarazten diete gurasoek, halako fitxa batzuen bidez. Han ikusi zitekeenaren arabera, lekura ederki molda-

tu direla zirudien. Bazkalondoan siesta eginarazten diete, arratsalde berriz Haur Eskolara joan aurretik.

Jangela zerbitzuaz baliatzen diren umeak 7 orduz egon daitezke Haur Eskolan, besteak 6: 09:00etik 13:00tara eta 15:00etik 17:00tara. Gaur egun 8 umek bazkalitzen dute bertan.

ZUZENKETA ▶

Atzo Hirzan, Xagu antzerki taldearen informazioa ematerakoan, Ainara Roda jartzen zuen lekuan, Ainara Gastearna azaldu behar zuten. Barkamenak kalterik eragin bada.

hitza **txokoa** lagun

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango diren 'ROBOTS' edo 'ENTRE COPAS' filmetarako 2 sarreraren irabazlea:

GEMA IRASTORZA MATXAIN HITZAren harpidedun laguntzaile abaltzisketarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Albiztur. Nerea Herrarteren ipuin kontaketa 17:30ean udal liburutegian.

Aitzo. Festei buruzko bilera Elordi elkartearen. 22:00etan.

Amezketak. Ugarteko elkarteak Petritegi sagardotegian bazkaria antolatuta du 16an. Izen-ematea: Goikoetxea tabernan 11 arte

Bidegoian. Nerea Herrarteren ipuin saioa.

Ibarra. Xabier Silveira, Jokin Uranga eta Fredi Paiaren *Zaharrak berri xou* bertso saioa Gaztebean 22:00etan.

Ibarra. Javier Vilches-ek zahartzaro osasuntsua nola lortu azalduko du Bizi nahi jubilatuta elkartearen 18:30ean. Ondoren mokadutxoia izango da

HAUTESKUNDEAK

Aduna. Batasunaren hitzaldia Elordi plazan 20:00etan. Inaxio Agirre.

Asteasu. Batasunaren hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan.

Lizartza. Batasunaren afari-hitzaldia Txirrita elkartearen 21:00etan. Eider Imaz.

Zizurkil. Batasunaren hitzaldia Aiztondo kultur etxean 20:30ean. Joxean Etxeberria.

KIROLAK

GAUR

Pilota

(Gipuzkoako Elkarleen Artekoa)
▶ Goierrri-Elordi Herrigintza (Eskuz binaka. Kadete 3. maila. Urretxu 19:15).

Areto futbola

▶ Bilkoin Legorreta-Trans. Lakunza (Autonomikoa. Harripila 21:45).
▶ Eskolapioak B-Tecnun (1. Maila A. Eskolapioak 21:00).
▶ Zestoa-Tinta Billabona (Neska Kopa. Gurutzeaga 20:45)

BIHAR

Areto futbola

▶ Hegoalde-Gironella (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).
▶ Jarrilerros-Ibarra (1. Nazionala A. Zubi alde 18:30).
▶ Laskorain-Piti Pascual (1. Nazionala B. Berazubi 17:00).
▶ Cash Converters-C.C.Ex. La Bellota (1. A. Olaederra 18:30).

Futbola

▶ Tolosa-Mutriku (Goren maila. Berazubi 16:30).
▶ Indartsu-Tolosa (Kadeteen

Euskal Liga. Basauri 12:15).

▶ Martutene-Tolosa B (Lurraldeko 1. Maila. Martutene 17:15)

▶ Eibartarrak-Intxurre (Lurraldeko 2. maila. Igoera fasea. Unbe 15:30)

▶ Ikasberri-Billabona (Jubenil 1. Maila. Garmendipe 16:00).

▶ Internacional-Intxurre (Jubenil 1. Matigoxotegi 19:00)

▶ Tolosa-Mondragon (Neskak. Igoera fasea. Alegia 16:00).

Futbol 7

▶ Ibarra K. Gazte Asanblada-Kroms (1.a. Idiazabal 1. 18:00).

▶ Cesar Rueda Seguros-Lanbroa Dickens (2. Maila. Felix Garin 2. 17:00).

▶ Bar Shanti Kirolak-Jalgi kafe antzokia (2.a Idiazabal 2.17:00)

Saskibaloia

▶ Alde Zaharra-Aralar Kirolak (Nagusiak. Aitzia 20:00).

Pilota

(Gipuzkoako Kluben artekoa)

▶ Zumaia 1-Kuku (Pala motza. Nagusiak 2.a. Odieta 12:30).

▶ Behar Zana-Lagunak (Eskuz binaka. Nagusiak 2. maila. Amasa 12:30).

▶ Lazkao 4-Aurrera Saiatz (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).

▶ Lazkao 2-Elordi Herrigintza (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).

▶ Ilunpe 2-Behar Zana (Eskuz. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).

▶ Lazkao 3-San Esteban (Eskuz Infantilak. Lazkao 17:00).

▶ Aurrera Saiatz 2-Ataun (Eskuz Infantilak. Lazkao 17:00).

▶ Elordi Herrigintza-Zarautz 1 (Eskuz binaka. Jubenil 2. maila. Ikaztegieta 17:00).

(Garziandia Txapelketa. Finalak. Beotibar. Tolosa 11:00)

▶ Bengoetxea-Ontsalo (Leitza)/ Berasaluze-Dominguez (Intxaurren) (3. eta 4. postuak)

▶ Mikelperizena-Zubieta (Bera) /Cerezo-Huarte (Bera) (finala).

ETZI

Futbola

▶ Tolosa-Zalla (Jubenilen Euskal Liga. Berazubi 16:30).

MUSIKA

Anoeta. Derties eta Ihesbide. Gaztebean 23:00etan.

Tolosa. Mak. 22:30ean, Bonberenean.

Tolosa. Bide Ertzean. Leidorren 22:30ean.

Mallorca eta Landak

'HITZA' ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Aste Santuko irudiak

MALLORCA ▶

Aitor Tejeria (Tolosa).

Ez dira denak paisaiak, irakurleek HITZAra bidali dituzten argazkien artean. Hona hemen Mallorcan lortu duten gizon honen erretratoa.



LANDAK ▼

Txema Zabala (Tolosa).

Landetara jende asko joaten da oporretara. Vieux Boucau lakua iluntzean harrapatu du honek eta honela azaldu du: «Ura, nahiko lasaia ikusten da, baino zerua, nahiko iluna, ekaitza hasteko zorian».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Lorea Etxekonanea.
Urtebete. Aresoko familiaren partez, muxu asko.



URTE ASKOAN

Ane Amundarain (Ibarra).
Gaur 3 urte. Muxu handi bat gurasoen partetik.



URTE ASKOAN

Arkaitz Agirretxe (Olazti).
Gaur urtebete. Zorionak etbekeen partetik.

HITZA, zorian agurren tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

